

SHERPAK ALA ASTOAK?

Tenzing Norgay nor den galdetuz gero, jende gutxik jakingo luke erantzuna. Edmun Hillary esanez gero, dezente jakingo luke, Everest mendiko tontorra zapaldu zuen lehenengo pertsona izan zela. Tenzing berriz, berarekin zihoan sherparen izena da, nahiz eta askoren gomutan ez egon.

Tolo Calafat mendizalearen heriotzak, hautsak harrotu ditu mendizaleen artean. Batik bat, mendizaletasunaren inguruan azken urteotan, lehiakortasunari dagokionez. Gaur egun ez da garrantzitsuena, mendi ibilaldiez gozatzea edota lagunekin elkartzeko aitzaki gisa, mendiaz gozatzea. Badirudi garrantzitsuena zortzi milakoen zerrenda osatzea dela. Eta ez da ez, kontu berria mendizaletasunaren inguruan nabarmendu den lehiakortasunaren afera hau. Gero eta ugariagoak baitira, "xtreme" deritzoten mendi probak, bai Euskal Herrian bai Espainian ere.

Hala ere, mendian zendu den Tolo Calafaten heriotzak, agerian utzi du mendizaleen artean dagoen lehia bizia eta sherpei ematen zaien tratamendua. Mendigoizalea, bera bakarrik hil zen elur artean izozturik. Beraien taldekoek, Juanito Oartzabal mendizale ezaguna tartean, beraien biziak arriskuan ikusi bezain pronto erabaki zuten beherantz egitea. Tolorekin geratu zen azken pertsona, Shawa izeneko sherpa izan zen. Ondoren denok gara jakitun, zer gertatu zen. Oartzabalen taldekoek, beste espedizio bateko sherpei dirua eskaini zieten, baina hauek ez zuten onartu. Arrazoia, arriskua. Juanito bera ere, ausartuko al zen 6000€-ren truke Tolorengana igotzen? Norena da errua? Sherpena? Errudunik ba al da egoera honetan? Galdera larregi eta erantzun gutxi.

Hasieran aipatu dudan Edmun Hillary mendizaleak esaten zuen, berak ez zuela Everesteko tontorra bakarrik egin. Tenzing sherparen laguntzari esker lortu zuela tontorrera iristea, beraien talde lanari esker. Goraipatzekoa dira hitzok, gaur egungo garaiotan. XXI. Mendean bizi arren, batzuetan badirudi XIV. Mendean bizi garela.

Sherpek, izena eta abizena dute, bizileku bat, ogibide bat, familia bat. Azken finean, beraien bizia arriskuan jarritz, bizia aurrera ateratzen duten pertsonak dira. Zu eta ni bezalakoak. Eta ez zait bidezkoa iruditzen, komunikabide eta mendizale batzuek sherpekiko duten trataera. Gure etxeko astoak, izena duen bitartean (Putxilin), beste hauek mandoak dirudite. Sherpak dira, eta beraien bizimodua aurrera ateratzen dute, mendiari esker. Askotan beraien bizia ere mendian galduz. Gure inguruan, gehiengoak badakizki Himalayan hil diren mendizaleen izen eta abizenak. Gehiengoak badaki, zein den 14 zortzi milako egiten lehena izan den emakumearen izena. Baina ez dakigu, zenbat sherpa hil diren mendizaleei laguntzen. Ez dakizkigu ezta ere, beraien izenak eta beraien

lorpenak. Ez dakigu beraiei buruz ezer, soilik gazteleraz esaten den bezala porteadoreak direla.

Bizi garen garaiotan, informazioak kutsaturik gaude. Baina agerikoa da, informazioa izatea pribilegio handia dela. Eta zoritxarrez, informazioa gero eta esku gutxiagoen menpe dago. Eta horren emaitza da sherpei ematen zaien tratamendua, beste kolektibo eta gatazken antzera.

Ezin dugu ahaztu pertsonok egiten ditugun lorpenak, ez direla norbanakoaren lorpen indibidualak soilik. Pertsonok elkarrekintzan jardutearen ondorioz lortutakoak baizik. Beraz, denoi dagokigu denon lana eta esfortzua aitortzea. Eta ezin dugu ahaztu ere, denok dugula izena eta abizena. Uste dut, horiek aipatzea ez dela hain zaila. Akaso batzuentzat, hori zailegia?